

Zer egin ahozko komunikazioa eskolan lantzeko?



04.Jul - 05.Jul 2018

Cód. H02-18

Mod.:
Presencial

Edición
2018

Tipo de actividad
Taller

Fecha
04.Jul - 05.Jul 2018

Ubicación
Casa de Cultura Clara Campoamor Kultur Etxea

Idiomas
Euskera

Validez académica
20 horas

Web
<http://soziolinguistika.eus/>

DIRECCIÓN

Olatz Bengoetxea Manterola, Soziolinguistika Klusterra, Teknikaria

Comité Organizador

Descripción

Ahozko komunikazioa edozein adinetan irakatsia izateko uneak eta aukerak hamaika dira eskolan, ikasgelan. Hizkuntza ikasgaiaren ez ezik, edozein arlotan agertzen da modu batean edo bestean ahozko komunikazioa. Eskolan hainbatetan ematen dituzte ikasleek gai baten inguruko azalpenak, ariketaren ebazpena eman dezaten eskatzen diegu, iritzia eman eta partekatzeke, sortzen ditugu egoerak asteburuko gertakizunak kontatzeko... Egoera horiek eraikitzea bezain garrantzitsua da egoera horietan ikasleek ahoz komunikatzeko dituzten gaitasun eta beharrak identifikatzea. Zenbateraino ezagutzen dituzte aurkezpen baten ezaugarriak, badute nahikoa hizkuntza-baliabide iritziak emateko, jendaurrekotasuna kudeatzeko baldintza egokietan jartzen ditugu?... Tailer honetan aztertuko dugu ahozko komunikazioa irakas-gai bihurtzeko zein aukera ditugun eskolan. Aurkeztuko dugu zein diren eskolan ahozkoa lantzeko uneak. Une bakoitzeko aukera metodologikoak ere bai. Sakonduko dugu adibide praktikoetan: ahozkoa lantzeko proposamen didaktikoak eta ikasleen ahozko ekoizpenak plazaratu eta taldean aztertuko dira, baita irakasleen praktika onak ere.

Objetivos

Programa

04-07-2018

08:45 - 09:00	Dokumentazio banaketa eta ongi etorria
09:00 - 11:30	“Gure testuinguru soziolinguistikoa eta ahozko hizkuntzaren lanketaren arteko lotura. Diagnostikoa egin eta ikastetxean erabakiak hartzeko oinarritzko adierazleak” Josune Zabala Alberdi Eusko Jaurlaritza - Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria Olatz Bengoetxea Manterola Soziolinguistika Klusterra - Ikertzailea eta formatzailea
11:30 - 12:00	Pausa
12:00 - 13:30	“Egitetik lantzerantz: pizgarri batzuk egiten dugunaz jabetzeko” Olatz Bengoetxea Manterola Soziolinguistika Klusterra - Ikertzailea eta formatzailea Josune Zabala Alberdi Eusko Jaurlaritza - Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria
13:30 - 14:00	Azken hitzak goizeko tailerraz
15:30 - 17:00	“Ahozko hizkuntza lantzeko uneak. Egoera autonomoak: ahozkoaren aldagai jakin bat lantzerantz bideratutako jarduerak eta jolasak” Olatz Bengoetxea Manterola Soziolinguistika Klusterra - Ikertzailea eta formatzailea Josune Zabala Alberdi Eusko Jaurlaritza - Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria

05-07-2018

09:00 - 11:00	“Egoera gidatuak: ahozko genero berezituak, errutinak eta sekuentzia didaktikoak” Josune Zabala Alberdi Eusko Jaurlaritza - Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria Olatz Bengoetxea Manterola Soziolinguistika Klusterra - Ikertzailea eta formatzailea
11:00 - 11:30	Pausa
11:30 - 13:00	“Egoera askeak: edozein elkarrekintzatan sortutako egoerak kudeatzeko praktika onak” Olatz Bengoetxea Manterola Soziolinguistika Klusterra - Ikertzailea eta formatzailea Josune Zabala Alberdi Eusko Jaurlaritza - Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria
13:00 - 13:30	Tailerrari amaiera. Azken hitzak.

Dirigido por:



Olatz Bengoetxea Manterola

Soziolinguistika Klusterra, Teknikaria

Hizkuntza teknikaria eta ikertzailea Soziolinguistika Klusterrean. Euskal Filologian lizentziatua (EHU, 2012) eta Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia Unibertsitate Masterra burutua (2019). Lan ibilbidean, euskara irakasle eta euskaraz mintzatzeko hainbat programetan parte hartu du. Horrez gain, hezkuntza ez konbentzionalean eta aisialdian hezitzaile eta dinamizatzaile lanetan aritu da haur eta gazteekin. Gaur egun, proiektu arduraduna da Soziolinguistika Klusterrean ahozko hizkuntzari buruzko hainbat egitasmo eta trebakuntza ikastaroetan. 2014az geroztik egiten du lan bertan. Eskolan euskararen ahozkotasunarekin lotutako hainbat ikerketatan dihardu.

Profesorado



Josune Zabala Alberdi

Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaria

Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaria Eusko Jaurlaritzan. Euskal Filologian lizentziatua (EHU, 2002), Hizkuntzen aditu titulua eskuratua (Mondragon Unibertsitatea, 2005) eta Euskal ikasketetan doktorego programa eta ikerketa gaitasuna burutua (EHU, 2008). Lan ibilbidean, euskara eta bere irakaskuntzaren alorra landu du, batez ere: helduen euskalduntzean euskara irakasle eta trebatzaile (AEK eta udal euskaltegiak, 1999-2004); Euskara Biziberritzeko planetan aholkulari (Azpeitiko euskara patronatua, 2004-2005), eta Mondragon Unibertsitatean irakasle (HUHEZI fakultatea, 2004-2008 eta 2012-2014). Ikerketari dagokionez, HIJE taldeko (Hizkuntzaren jabekuntza eta erabilera) eta Eusko Ikaskuntzako Hezkuntza saileko partaide ere bada, eta Soziolinguistika Klusterrean ahozketasunari buruzko ikerketa eta formazio ezberdinak gauzatu ditu. Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendari lanetan dihardu egun Eusko Jaurlaritzan.

Precios matrícula

MATRICULA	HASTA 31-05-2018	HASTA 04-07-2018
GENERAL	60,00 EUR	70,00 EUR
MATRÍCULA REDUCIDA	35,00 EUR	-
EXENCIÓN DE MATRÍCULA	20,00 EUR	20,00 EUR
MATRÍCULA ESPECIAL	35,00 EUR	-
Tarjeta soci@ ELKAR	52,50 EUR	-
Miembro de AEK	52,50 EUR	-

Lugar

Casa de Cultura Clara Campoamor Kultur Etxea

Gernikako Arbola Etorbidea, 41 - 48902 Barakaldo.

Bizkaia